



Enpresa onuradunak
(art. 7)

**Baldintza hauek betetzen
dituzten enpresa berritzaile
sortu berriak:**

- Sozietatearen egoitza soziala eta fiskala eta planta nagusia Bizkaiko LHan edukitzea
- Zergetak eta Gizarte Segurantzako betebeharreran egunean egotea
- Jarduera 2007/01/01 baino lehen hasi ez izana.
- 2008/12/31 baino lehen zuzeneko 2 lanpostu sortzea, eta eskaera egin den datan gutxienez enplegu bat sortuta egotea.
- Enpresa berriak nortasun juridikodun merkataritza-sozietatea edo kooperatibaren era juridikoa izan behar du.

**Enpresa berritzaile
berriak**
(art. 2)

Berritzailetzat joko dira produktu, prozesu edo zerbitzuetan elementu berritzaileak aurkezten dituzten enpresen ekimenak.

1. Lehentasuna izango dute ondoko hauek: ezagutzaren arloko teknologia aurreratu eta/edo intentsiboetan oinarritzen diren enpresa berriak edo proiektuak.
2. Halaber, hauek hartuko dira kontuan: Bizkaiko merkaturan berriak diren produktuak, prozesuak eta zerbitzuak ekarriko dituzten enpresa berriak eta enpresa proiektuak, hain zuzen ere aberastasuna sortzeko ahalmen handia dutenak.

**Diruz lagungarria den
egitatea**
(art. 5)

- 30.000 eurotik gorako inbertsio-proiektua. Inbertsioak 2007/01/01etik 2009/12/31ra bitarteko aldirian burutuko dira ondoko aktibo finko berri hauetan: aplikazio informatikoak, instalazio teknikoak, makineria, tresneria, bestelako instalazioak eta informazioa prozesatzeko ekipoa.
- Enpresa berria eratzeagatik hobaria. Enpresa berritzaile joko dira euren jarduera 2007/01/01ean hasi gabe dutenak
- Enpresa martxan jartzeagatik gastuak eta merkaturatze kanpainaren gastuak. 2007/01/01etik 2008/12/31ra bitarteko aldirian burutu direnak.
- Negozioaren lokala alokatzeko errenta. 2008/01/01etik 2008/12/31ra bitarteko aldirako.
- Jabetza intelektual eta/edo industrialaren babesa lortzeko aholkularitza-gastuak, 2007/01/01etik 2008/12/31ra bitarteko aldirako.
- Doktore bat edo teknologo bat kontratatze gastuak, baldin eta enpresa berriaren barruan garapen teknologiko zehatzen proiektuetan esku hartzeko kontratatu bada. Kontratazioa 2007/01/01etik 2008/12/31ra bitarteko aldirian burutu behar da

Diruz lagun daitezkeen egitateari kargatutako zergak ez dira diruz lagunduko.

Onurak
(art. 6)

1. Inbertsio-proiektua: enpresak Seed Capital elkartearen partaidetza-maileguak baliatu ahal izango ditu, alde aurretik BEAZ, S.A. erakundeak aldeko txostena emanda. Partaidetza-kredituen gehienezko zenbatekoa 100.000 €-koa da eta ez du inbertsioaren %50 gaindituko. Kreditu hauek baliatzeko enpresak Sustatu Bideberriren edo Kideren laguntza jasoa izan behar du.
2. Enpresa berria eratzeagatik prima: gehienez 15.000 €koa izango da enpresa bakoitzeko eta, ez da izango ordaindutako sozietate-kapitalaren %50 baino gehiago.
3. Enpresa martxan jartzeagatik gastuak eta merkaturatze kanpainaren gastuak: gastu horien %60rainoko diru-laguntza, eta enpresa bakoitzari gehienez 15.000 € emango zaio.
4. Negoziorako lokala alokatzeko errenta: %50eko diru-laguntza, eta ekitaldi bakoitzeko gehienez 8.000 €
5. Jabetza intelektual eta/edo industrialaren babesa lortzeko aholkularitza-gastuak: %60rainoko diru-laguntza, eta enpresa bakoitzari gehienez 15.000 € emango zaio.
6. Doktore bat edo teknologo bat kontratatze gastuak: %40eko diru-laguntza, eta ekitaldi bakoitzeko gehienez 15.000 €

Arautegia

27/2008 Foru Dekretua, martxoaren 11koa, oinarrien arautzailea (BAO 58 zk. 2008ko martxoaren 27a)
47/2008 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, deialdia (BAO 65 zk. 2008ko apirilaren 7a)

Eskabideak

Aurkezteko epea: 2008ko uztailaren 1etik 2008ko irailaren 15era arte, interneten bidez.

<http://www.programasustatu.com>

e-mail: sustatu@bizkaia.net

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

Orueta Apezpikua, 6. 48009 Bilbo

Argibidea: ☎ 94 406 80 38

Erakunde kudeatzaileak:

Beaz, S.A.: Errekalde zum., 18- 6. - 48009 BILBO - ☎ 94 423 92 28

Beaz Mintegia: Sangroniz, 6 – 48150 SONDIKA - ☎ 94 471 01 16

Cedemi: Altos Hornos de Vizcaya etorb., 33 -48901 - BARAKALDO - ☎ 94 418 41 00